

Soldata Egituraren Udal Estatistika
Nafarroako Foru Komunitatea. 2021. urtea.

2021ean, batez besteko soldata gordinik altuena Cizurren izan da, 38.793,4 eurokoa, eta baxuena, Cadreitan, 22.298,1 eurokoa

Soldatan sexuaren arabera izan den alderik handiena Noainek (Elortzibar) izan du, % 31,9ko soldata-arrakala izan baitu, eta txikiena, Los Arcos azpieroak, % 12,9koa

2023ko uztailaren 26(a)

Atzerriko nazionalitatea duten soldatakoek batez besteko soldata gordin baxuagoak dituzte, Esteribarren bizi direnek izan ezik.

Nafarroako eskualde guztietan daude soldatan aldeak desgaitasunaren arabera. Txikiena Erriberagoienan eta handiena Zangozerrian.

SOLDATA EGITURAREN UDAL ESTATISTIKA

Estatistika honen helburu nagusia da udal-mailako urteko batez besteko soldata gordina ezagutzeko, langilearen ezaugarriak kontuan hartuta: sexua, desgaitasun-egoera, nazionalitatea, jaioterria, lan egiten duen sektore ekonomikoa eta adina.

URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA


Udalerriak. Nafarroan, pertsona baten batez besteko soldata gordina 28.459,4 eurokoa da 2021ean, aurreko urtean jasotako batez besteko soldata gordina baino 463,4 euro handiagoa. Cizur da baliorik handieneko udalerria, 38.793,4 euroko batez besteko soldata gordina baitu; Cadreitak, berriz, 22.298,1 euroko batez besteko soldata txikiena du.



Cizur, Aranguren eta Esteribar udalerriek –Iruña ingurukoak dira– dituzte baliorik handienak, eta Cadreitak, Azagrak eta Mendaviak –Ebro Ardatzean daude–, baliorik txikienak.

1. GRAFIKOA

Batez besteko soldata gordina eskualdeen arabera¹ (eurotan). 2021. urtea.



Iturria: Nastat. Soldata-egituraren udal-estatistika.

URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA SEXUAREN ARABERA

Guztira. 2021ean, gizonen batez besteko soldata gordina 31.254,7 eurokoa da Nafarroan, eta emakumeena 25.309,9 eurokoa. Gizonen batez besteko soldata gordina 516,6 euro igo da aurreko urtearen aldean; emakumeenak, 381,9 euro. Hortaz, gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala 2020ko % 18,9tik 2021eko % 19,0ra igo da.

Udalerriak. Cizur da batez besteko soldata gordin handienak dituen udalerria, 45.798,0 euro eta 31.383,1 euro gizonentzat eta emakumeentzat, hurrenez hurren. Noain (Elortzibar) sexuaren arabera soldata-arrakala handiena duten udalerrien zerrendaburu da. Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala, kasu horretan, % 31,9koa da.

Batez besteko soldata gordin txikienak gizonen kasuan Cadreitak (24.382,7 euro) ageri dira, eta emakumeen kasuan, Mendavian (19.786,6 euro).

Sexuaren araberako soldata-arraila² txikiagoa da Los Arcos azpieroan eta Corella eta Arguedas udalerrietan, % 12,9ko, % 13,7ko eta % 13,9ko balioekin, hurrenez hurren;

¹ Nafarroako Toki Administrazioa Erreformatzeko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen araberako eskualdeak.



handienak, berriz, Noain (Elortzibar), Cizur eta Galarren erregistratu dira: % 31,9 % 31,5 eta % 28,0, hurrenez hurren.

URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA DESGAITASUNAREN ARABERA

Guztira. Desgaitasuna duten pertsonen batez besteko soldata gordina 21.443,2 eurokoa da, eta desgaitasunik ez dutenena 28.618,4 eurokoa. Horrek % 25,1eko arrakala adierazten du. Aurreko urtearekin alderatuta, gora egin du bai desgaitasunik ez duten pertsonen, bai desgaitasuna duten pertsonen batez besteko soldata gordinak; % 1,7 lehenengo kasuan eta % 1,6, bigarreanean.

Eskualdeak³. Desgaitasuna duten pertsonentzako batez besteko soldata gordin altuenak eskualde hauetan daude: *Larraun-Leitzaldean* (23.499,4 euro) eta *Iruñerria* (22.128,6 euro). Desgaitasunik ez duten pertsonentzat, batez besteko soldata gordin altuenak *Iruñerrian* daude (30.239,9 euro), eta ondoren *Larraun-Leitzaldean* (29.176,8 euro). Aldiz, batez besteko soldata gordin txikiak *Erriberagoiengan* (24.184,4 euro) eta *Erriberan* (25.569,7 euro) jasotzen dira desgaitasunik ez duten pertsonen kasuan, eta *Zangozerrian* (19.174,6 euro) eta *Erriberan* (19.336,2 euro) desgaitasuna duten pertsonen kasuan.

Era berean, soldata-alderik handiena *Zangozerrian* dago, desgaitasuna duten pertsonen eta desgaitasunik ez duten pertsonen arteko soldata-arrakala⁴ % 31,4koa baita bertan, eta, ondoren, *Izarbeibar-Noveneran* (% 28,2koa). Soldata-arrakala hori txikiagoa da *Erriberagoiengan* (% 11,0), eta, ondoren, *Larraun-Leitzaldean* (% 19,5).

URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA NAZIONALITATEAREN ARABERA

Guztira. Nazionalitatearen araberako soldata-arrakala % 29,4koa da. Espainiar baten batez besteko soldata gordina 29.136,1 eurokoa da, eta atzerritar baten batez besteko soldata gordina, 20.576,2 eurokoa. 500 euro baino gehixeago igo da aurreko urtearen aldean Espainiako nazionalitatea dutenen kasuan, eta 180 euro gehiago, atzerriko nazionalitatea dutenen kasuan.

Udalerriak. Cizurren, Aranguren eta Esteribarren, espainiar nazionalitatea duten soldatakoek jasotzen dituzte batez besteko soldata gordin handienak: 39.128,0 euro, 35.404,8 euro eta 33.811,0 euro, hurrenez hurren. Esteribarren, Eguesibarren eta Galarren bizi diren eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonen batez besteko soldata gordin handienak jasotzen dituzte: 34.026,9 euro, 29.821,3 euro eta 28.529,3 euro, hurrenez hurren.

²Soldata-arrakalaren adierazleak islatzen du gizonen eta emakumeen batez besteko soldataren arteko aldea, gizonen batez besteko soldataren portzentaje gisa.

³Desgaitasun-egoeraren araberako desagregazioa ezin da udalerrri-mailan egin, udalerrri gehienetan kasu asko falta direlako.

⁴Soldata-arrakalaren adierazleak islatzen du desgaitasunik ez duten eta desgaitasuna duten pertsonen batez besteko soldataren arteko aldea, desgaitasunik ez duten pertsonen batez besteko soldataren portzentaje gisa.



Espainiako nazionalitatea dutenen batez besteko soldata gordinik txikienak honako udalerrri hauetan daude: Azagra (22.981,2 euro), Mendavia (23.343,5 euro) eta Cadreita (23.459,9 euro). Batez besteko soldata gordin txikienak dituzten atzerriko nazionalitateko pertsonak, berriz, honako udalerrri hauetan bizi dira: Andosilla (15.767,4 euro), Mendavia (16.453,7 euro) eta Cadreita (16.479,3 euro).

Espainiako eta atzerriko nazionalitatea duten⁵ pertsonen jasotzen duten soldataren arteko alderik handiena Cizurren dago. Bertan aldea % 42,7koa da. Ondoren Andosilla (% 37,6) eta Cascante (% 33,9) datoz. Esteribarren berriz, Espainiako eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonen arteko soldata-arrakala -% 0,6koa da; ondoren, Eguesibarren % 11,7koa eta Zizur Nagusian, % 12,1ekoa.

URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA JAIOLAKUAREN ARABERA

Guztira. Espainian jaiotako pertsona baten batez besteko soldata gordina 29.926,8 eurokoa da, eta 21.081,6 eurokoa munduko gainerako herrialdeetan jaiotakoa bada. Bi zifra horiek gora egin dute 2020. urtearekin alderatuta, eta Espainian jaiotako pertsonen soldata-igoera zertxobait handiagoa izan da. Horrela, soldata-arraila pixka bat txikitu da: % 29,7tik % 29,6ra.

Udalerrriak. Aurreko atalaren antzera, Espainian jaiotako pertsonentzako batez besteko soldata gordin altuenak honako udalerrri hauetan daude: Cizur (39.616,4 euro), Aranguren (35.829,4 euro) eta Eguesibar (34.773,5 euro); eta munduko gainerako herrialdeetan jaiotakoentzako, berriz, honako hauetan: Esteribar (34.548,1 euro), Galar (28.898,1 euro) eta Zizur Nagusia (27.473,9 euro).

Espainian jaiotako pertsonen jasotzen dituzte batez besteko soldata gordin txikienak Mendavian (23.462,9 euro), Azagran (23.491,2 euro) eta Cadreitan (24.178,5 euro). Hala ere, munduko gainerako herrialdeetan jaiotakoentzat balio txikienak honako udalerrri hauetan daude: Andosilla (16.550,5 euro), Cadreita (17.036,8 euro) eta Mendavia (17.145,6 euro).

Espainian jaiotakoen eta munduko gainerako herrialdeetan jaiotakoen⁶ arteko soldata-arrakalarik handiena Andosillan eta Iruñean dago (% 36,5 eta % 33,8, hurrenez hurren), eta txikiena Esteribarren (-% 2,3), Galarren (-% 15,0) aurretik.


⁵ Soldata-arrakalaren adierazleak islatzen du pertsona espainiarren eta pertsona atzeritarren batez besteko soldataren arteko aldea, atzeritarren batez besteko soldataren portzentaje gisa.

⁶ Soldata-arrakalaren adierazleak islatzen du Espainian jaiotakoen eta munduko gainerako herrialdeetan jaiotakoen batez besteko soldataren arteko aldea, Espainian jaiotakoen batez besteko soldataren portzentaje gisa.




2. GRAFIKOA

Soldata-arrakala eskualdeka, ezaugarrien arabera. 2021. urtea.



Iturria: Nastat. Soldata Egituraren Udal Estatistika.



URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA SEKTORE EKONOMIKOAREN ARABERA

Guztira. Industria-sektorean jasotzen da batez besteko soldata gordin handiena (32.060,8 euro), eta haren atzetik datoz Eraikuntza eta Zerbitzuak (28.713,5 euro eta 27.048,6 euro, hurrenez hurren).

Udalerriak. Industria-sektorean, Cizurren bizi direnek dute batez besteko soldata gordin handiena (49.133,3 euro), eta haren ondoren datoz Aranguren (42.860,8 euro) eta Eguesibar (41.640,3 euro). Aldiz, Cadreitako, Mendaviakoa eta Villafrancako biztanleek jasotzen dituzte soldata txikienak: 20.805,5 euro, 21.915,7 euro eta 22.270,5 euro, hurrenez hurren.

Eraikuntza-sektorean, batez besteko soldata gordin handienak honako udalerrri hauei dagozkie: Galar (45.697,5 euro), Cizur (37.469,7 euro) eta Araxes-Larraun ibaien ibarrak (36.786,5 euro). Txikienak honako hauei dagozkie: Los Arcos azpierzemua eta Milagro eta Corella udalerrriak, 21.665,4 euro, 22.827,3 eta 23.417,1 euro, hurrenez hurren.

Zerbitzuak sektorearen barruan, Cizur da berriz ere soldata gordin handieneko udalerrria (36.493,6 euro), eta ondoren datoz Aranguren (32.921,9 euro) eta Galar (31.821,4 euro). Zerbitzuak sektoreko batez besteko soldata gordin txikienak honako udalerrri hauetan erregistratu dira: Ribaforada, Azagra eta Carcastillo (21.836,6 euro, 21.864,1 euro eta 22.050,0 euro, hurrenez hurren).

3. GRAFIKOA

Batez besteko soldata gordina sektore ekonomikoaren eta eskualdearen arabera (eurotan).
2021. urtea.

	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Baztan-Bidasoa	30 167	31 410	24 745
Larraun-Leitzaldea	32 361	32 948	27 037
Pamplona / Iruñerria	36 713	28 933	28 271
Pirineo / Pirinioak	33 299	28 402	26 396
Prepirineo / Pirinioaurrea	32 310	29 477	24 933
Ribera / Erribera	26 342	27 342	24 847
Ribera Alta / Erriberagoiena	24 630	28 097	23 293
Sakana	31 648	30 412	24 537
Sangüesa / Zangozerría	32 958	30 504	23 932
Tierra Estella / Estellerría	27 487	27 203	24 905
Valdizarbe-Novenera / Izarbeibar-Novenera	30 387	28 889	25 744
Zona Media / Erdialdea	28 972	27 011	24 432

Iturria: Nastat. Soldata Egituraren Udal Estatistika.

URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA ADINAREN ARABERA

Guztira. 25 urtetik beherakoek 15.958,5 euroko urteko batez besteko soldata gordina jasotzen dute, 25 eta 34 urte bitartekoek, 24.032,2 eurokoa; 35 eta 44 urte bitartekoek, 28.738,0 eurokoa; 45 eta 54 urte bitartekoek, 32.408,6 eurokoa, eta, azkenik, 55 urte eta gehiagokoek, 32.281,3 eurokoa. Aurreko urtearen aldean, batez besteko soldata gordina adin-talde guztietan igo da, eta igoyerarik handiena nagusien artean erregistratu da.



4. GRAFIKOA

Urteko batez besteko soldata gordina adin-taldearen eta eskualdearen arabera (eurotan). 2021. urtea.

	25 urte baino gutxiago	25 urtetik 34 urtera	35 urtetik 44 urtera	45 urtetik 54 urtera	55 urte eta gehiago
Baztan-Bidasoa	16 580	25 029	27 741	29 659	28 410
Larraun-Leitzaldea	16 990	27 344	31 022	32 439	29 298
Pamplona / Iruñerria	15 764	24 723	29 909	34 480	34 921
Pirineo / Pirinioak	16 406	25 261	28 577	30 837	29 875
Prepirineo / Pirinioaurrea	16 223	23 500	27 494	30 475	29 806
Ribera / Erribera	15 830	21 809	26 273	28 011	28 934
Ribera Alta / Erriberagoiena	16 210	21 999	24 371	26 650	26 933
Sakana	16 575	24 587	28 735	30 624	29 796
Sangüesa / Zangozerría	17 652	26 024	28 096	31 181	29 434
Tierra Estella / Estellerría	16 052	22 491	26 620	29 688	27 856
Valdizarbe-Novenera / Izarbeibar-Novenera	16 642	23 741	29 249	31 083	28 525
Zona Media / Erdialdea	16 109	23 260	27 141	29 708	28 139

Iturria: Nastat. Soldata Egituraren Udal Estatistika.

Udalerrriak. Populazio gazteenaren batez besteko soldata gordinik handiena Noainen (Elortzibar) bizi direnei dagokie (18.313,4 euro), eta txikiena Arguedasen bizi direnen artean erregistratu da, 14,927,2 eurokoa. Nagusien artean, Cizurren dituzte batez besteko soldata gordinik handienak, 46.332,4 eurokoak, eta Fitero udalerrian txikienak, 22.885,0 eurokoak.

1. TAULA

Urteko batez besteko soldata gordin handiena eta txikiena duten udalerrriak adin-taldearen arabera (eurotan). 2021. urtea.

	Urteko batez besteko soldata gordin		Urteko batez besteko soldata gordin txikiena	
	Udalerría	Euro	Udalerría	Euro
25 urtetik behera	Noain (Elortzibar)	18.313,4	Arguedas	14.297,2
25-34 urte artean	Esteribar	30.329,3	Cadreita	20.476,1
35-44 urte artean	Cizur	38.269,7	Azagra	23.010,2
45-54 urte artean	Cizur	50.493,6	Cadreita	23.195,6
55 urte eta gehiago	Cizur	46.332,4	Fitero	22.885,0

Iturria: Nastat. Soldata Egituraren Udal Estatistika.

URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA BESTE LURRALDE-DESAGREGAZIO BATZUEN ARABERA

Adierazleak udalerrri-mailako desagregazioetarako kalkulatu dira udalerriko biztanle kopurua 2.000 pertsonatik gorakoa denean, eta web-orrian kontsultatu daitezke Nafarroa 2000 zonen eta eskualdeen araberako adierazleak, Nafarroako Toki Administrazioa Erreformatzeko 20/2019 Foru Legearen arabera.

Gainera, Iruñeko auzoen arabera desagregatutako informazioa kalkulatu da. Hala, batez besteko soldata gordin handieneko auzoa Zabalgunea da, 38.200,0 euroko batez besteko soldata gordinarekin, eta ondoren datoz Iturrana (35.172,3 euro) eta Ermitagaña-Mendebaldea



CONTACTO | HARREMANETARAKO


estadistica@navarra.es

848 42 34 00

(35.043,0 euro). Bestalde, Sanduzelai da batez besteko soldata gordin txikieneko auzoa (24.790,9 euro), eta ondoren datoz Txantrea (25.949,8 euro) eta Arrotxapea (26.243,8 euro).

5. GRAFIKOA

Urteko batez besteko soldata gordina Iruñeko auzoaren arabera (eurotan). 2021. urtea.



Iturria: Nastat. Soldata Egituraren Udal Estatistika.





OHAR METODOLOGIKOA

Soldata-egituraren udal-estatistikak helburu nagusia du urteko batez besteko soldata gordinaren banaketa aztertzea Nafarroa osoa baino lurralde-esparru txikiagoetan, eta, horretarako, soldatakoaren ezaugarriak zehazten ditu, hala nola sexua, adin-taldea, nazionalitatea, jaiolekua, desgaitasun-egoera eta jarduerasektorea. Azken argitalpena 2021ekoa duen Soldata-egituraren inkestarekin (INE) koherentziari eusteko, ustiapenean erabilitako goratze-faktoreak kalkulatu dira.

Xede-biztanleria honako hauek osatzen dute: 2022ko urtarrilaren 1eko Biztanleriaren Erregistroan sartuta dauden besteren konturako langileak, baldin eta haien ordainsaria soldata bada eta enpresa ordaintzaileek kotizazio-zentroa Nafarroako Foru Komunitatean badute, kanpoan utzita nekazaritza-sektoreko, etxeko zerbitzuko eta lurraldez kanpoko erakundeetako langileak. Informazio hori betetzeko, oinarri hartzen da Nafarroako Foru Ogasunaren 2021erako lan-etekinen ondoriozko atxikipenen informazio-eredua. Lortutako emaitzak Soldata-egituraren inkestatik (INE) abiatuta doitzen dira. Horren azken edizioa 2021ekoa da.

Soldatako pertsonen inguruan beharrezko informazioa ematen duten administrazio-erregistroak erabiltzen dira.

Denbora-bilakaera aztertu ahal izateko, estatistika 2012tik egiten da, urtero eguneratzeko helburuarekin.

- **Eragiketa mota:** urtekoa.
- **Biztanleria-esparrua:** Nafarroan bizi diren soldatapekoak, baldin eta enpresa ordaintzaileak kotizazio-zentroa Nafarroako Foru Erkidegoan badu, kanpoan utzita nekazaritza-sektoreko, etxeko zerbitzuko eta lurraldez kanpoko erakundeetako langileak.
- **Eremu geografikoa:** Nafarroako Foru Komunitatea
- **Emaitzen erreferentzia-aldia:** urtea.
- **Biltzeko metodoa:** administrazio-erregistroak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, estatistika honen ohar metodologikoa kontsultatu daiteke Nastaten webgunean.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Soldata-egituraren udal-estatistika.2021. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00